

ZALDIBIKO FESTAK 2025



URRIAK
2, 3, 4, 5, eta 11



**ZALDIBIAKO
UDALA**
www.zaldibia.eus

Agurra

KAIXO HERRITAR,

Badatoz festak!

Aurten ere herriko eragile eta norbanakoen bultzada nekaezina lagun, festa batzordeak osatu du esku artean duzun egitaraua. ESKERRIK ASKO herriko festen antolakuntzan eta lanetan aritu eta ariko zareten guztioi. Urtero erre-pikatzen dugun bezala, zuek gabe ezinezkoa litzatekeelako. FESTAK HERRI-TIK ETA HERRIARENTZAT.

Herritar guztiei tokia eman nahi dien ekintzekin osatu da egitaraua, ekarpe-nak jasoz eta berrikuntzak ere txertatuz. JAI HERRIKOI, EUSKALDUN, PA-REKIDE, PARTEHARTZAILE, ANITZ ETA ELKARLANEAN OINARRITUAK ditugu helburu, gure herriaren balioen ispilu.

Eta guztion ahalegin eta arduraz ere, ASKATASUNA, ERRESPETUA eta GIRO ONA izan daitezela festen oinarri, bai herritarren artean, bai gure artera eto-rriko direnekin, baita inguruarekiko ere. HORI ERRESPETATZEN EZ DUE-NAK EZ DU LEKURIK ZALDIBIN.

GOZATU, IZAN ASKE ETA ASKE SENTIARAZI ALDAMENEKOA. Gogoan izan ditzagun gure artetik joan direnak eta eraman zituztenak. FESTETAN ERE FALTA DIRENAK GOGOAN!

Jaia eta aldarrikapena uztartuz, ELKARTASUNA, herrien arteko xamurta-suna adierazi dezagun. GENOZIDIORIK EZ, GORA PALESTINA ASKEA!

Ondo pasa festak! Gora Zaldibi!

Zaldibian, 2025eko irailean

Lotura honetan
egitaraua digitalki
eta elebitan:
Aqui el programa de
fiestas en castellano:



OHARRA:

Etxe eta auzoak alaitzeko Ikurrinak
eskura dituzue udaletxean eta
kultur etxean euro baten truke.
(Ikurrina bat etxeko).



Jaiak ondo pasa!

ураццелееў сiма

Qué passis unes bones festes!

اچھی چھتیاں گزاریں

Aproveitem bem as festas!

Have fun at the town's festivals!

चाइपर्व शक्रोश्वा ममाउबुहोस

Viel Spass beim fest!

استمتعوا بالاحتفالات

Amuse-vous bien dans les fêtes!

Disfruta de las fiestas!

SĂRBĂTORI FERICITE

Pasade boas festas!

BHAIN SPRADI AS NA SAOIRSE!

ZALDIBIAKO TALO TALDEA

25 urte elkartasun taloak eginez

1998an sortu zen Zaldibiako Talo Taldea, baina Koronabirusak sortutako etenaldia tarteko, aurren 25. urteurrena ospatuko du egitasmoak eta Herriko Jaiei hasiera emango dien txupina botatzeaz ardurako dira taldeko kideak.



Sorreratik, auzolanean eta elkartasunean oinarritutako egitasmoa izan da Talo Taldearena. *Egin* itxi zutenean, egunkari berria martxan jartzeko dirua biltzeko asmoz elkartu ziren hainbat zaldibitar. “Garai hartan adinekoak ziren taloa egiten zekitenak. Zubiburu elkartean urtean behin talo-jana egiteko ohitura zegoen, eta bertan zein jarduten ziren bagenekienez, adineko pertsona horiengana joan ginen laguntza eske”, aitortu dute Belenek, Maixak eta Marijok. Adineko talogile horiei esker jarri zuten martxan ekimena, eta pixkanaka beren ezagutza belaunaldi berriei zabalduz eta lekukoa pasatuz joan ziren. “Hasiera horietan taldean jardun ziren zaldibitar asko gaur egun



gure artean ez badaude ere, egin zuten lana eta ekarpena aitortu nahi diegu 25. urteurrenean”.

1999az geroztik, Talo Taldeak ETXERATen ize-
nean jarri du postua, Euskal Preso eta Iheslarien
gastuei aurre egiten laguntzeko, eta, urtez urte,
egitasmoa sendotuz eta herrian errotuz joan da.
Hasieran, esaterako, txosna alokatu egiten zuen
taldeak, baina irabazitakoaren zati handi sama-
rra txetola ordaintzera bideratu behar zutenez,
erabaki zuten urte batean bildutakoarekin euren
azpiegitura propioa (Txetola eta plantxa) egitea.
“Beharrezko materiala erosi genuen, eta Ando-
nik bere lantegian eraiki zuen txetola. Guretzat
laguntza ikaragarria izan zen, horrelako azpie-
gitura bat erostea oso garestia delako. Urte be-
rean, gainera, Ramonen bidez egin zen
erabiltzen dugun gurpildun plantxa”. Bi berri-
kuntzek bultzada handia eman zioten egitas-
moari.

Pixkanaka, ekimena herrian errotu ahala, taloa-
ren inguruko kultura ere sortu da Zaldibian, eta



salmentetan antzeman dute bilakaera. “Zaldibi-
tarrentzat ohitura bihurtu da herriko jaietan eta
Ardiki Egunean taloa jatea, eta ume askoren
jaietako afaria izan ohi da gainera”. Hori dela
eta, orain lehen baino askoz talo gehiago sal-
tzen dute. “Ohiturak aldatzen ari dira. Lehen,
esaterako, talo gehien goizaldean saltzen zen,
eta orain, berriaz, egunean zehar”.

Gaur egun, urtero ehun lagun inguruk lan egiten
du boluntario Talo Taldean. “Garai batean, txan-
dako bost-sei lagunekin moldatzen ginen, baina
orain ondo jarduteko 12 lagun ere behar izaten
dira”. Horiez gain, muntaia eta garbiketa lan-tal-
deak ere badituzte. “Ezkutuko lan handia” dau-
kala aitortu dute taldeko kideek. Horregatik, 25.
urteurrenean gurpilak martxan jarrai dezan “be-
launaldi berriek ardurak hartzea” da Talo Taldea-
ren erronka. “Lan handia da guztia koordinatzea.
Gaur egun hiru lagun ibiltzen gara horretan,
baina adinean aurrera goaz eta nahi genuke gaz-
teek erreleboa hartzea. Gu beti egongo gara on-
doan bidelagun, laguntzeko prest”.



Irailak 26 ostirala

19:00etan **EMAKUMEEN MASTER CUP TXAPELKETAREN
KANPORAKETA.**

AINIHITZE ARRATIBEL - **EZKI ARIZTI** / LARRAITZ GALARDI - ITXASO IPARRAGIRRE
LIDE LOPEZ MURUA - IRATI BETEGI / MIRIAM ARRAIZA - NAHIA BERTIZ

UDAKO ESKUZ BINAKAKO
MASTER LABORAL KUTXA TXAPELKETA
EMAKUMEEN ESKU PILOTA



ZALDIBIA

 **IRAILAK 26**

 **19:00**

ARRATIBEL-ARIZTI
GALARDI-IPARRAGIRRE

LOPEZ MURUA-BETEGI
ARRAIZA-BERTIZ

  



 **ZALDIBIAKO
UDALA**
zaldibia.eus

JAIEN HASIERA

18:30ean Festak hasi aurreko **KALEJIRA, HERRIKO GOIZTIRI TXARANGA ETA TXANBOLINTERO TXISTULARIEN** doinuekin, **ERRALDOIEK eta DANTZARIEK** alaiturik, **PLAZATIK ABIATUTA** herrian barrena.

19:00etan **TXUPINAZOA** udaletxeko **balkoitik**. Aurtengoan **TALO TALDEKO** kideek botako dute festei hasiera emango dien txupina.

Ondoren **ERRALDOIAK, BURUHANDIAK** eta herriko **GOIZTIRI TXARANGA**.

20:00etan **MONDEJUA dastatzeko aukera** herriko plazan, ardoz eta musikaz lagundurik. **Pintxoa: 1€**. Bildutako dirua dohaintzan emango zaio **IZAN INURRI ELKARTEARI**, bularreko minbiziaren azterketan laguntzeko.

21:30etik 00:30era **JOSELU ANAIAK** taldearekin dantzaldia.



Urriak 3 ostirala

11:00etatik aurrera Txorotxaragarako girotzea Ausa Gaztelu Guraso Elkartearen eskutik eta **JOLASAK** Gaztelekuak antolatuta, plazan.

12:00etatik 13:30era **TXOROTXARANGA** haurrentzat, plazan hasita.

11:00etan **TOKA** plazan, Beti Gazte Elkartek antolatuta.

12:00etan **JUBILATUEN HAMAIKETAKOA** Beti Gazte Elkartek antolatuta.

16:30ean **HAURREN PLAY-BACK JAIALDIA**, Ausa-Gaztelu Guraso Elkartek antolatuta.

18:00etan hasita **GOITIBEHERA JAITSIERA** Urtesabel auzoan, Aldaburutik beherako aldan, Zaldibiako Gazte Asanbladak sustatuta.

Bukatutakoan **PALESTINAREN ALDEKO EKITALDIA** plazan, Zaldibiako Gazte Asanbladak antolatuta.

Gauean **KONTZERTUAK** Zaldibiako Gazte Asanbladak antolatuturik, Zaldibiako Udalaren laguntzarekin:

22:30ean ODEI

00:00etan IMUNTZO ETA BELOKI

02:45ean DJ TINTZ

BARRAKETAN PREZIO MURRIZTUA egun osoz.

ASKE TALDEAK zapi morea egun osoz janzteko deia egiten du.



MOZORRO EGUNA

11:00etan **BURUHANDIEN KALEJIRA** herriko txistulariek lagundurik.

11:00etatik aurrera **ARROZ PRESTATZE HERRIKOIA** plazan.

13:00etan **MOZORROTUEN BILKURA**
ETA ARGAZKI GUNEA, plazan.

14:30ean **ARROZ BAZKARI HERRIKOIA**
plazan. Norberak egin behar
du arroza plazan edo etxetik
eginda ekarri. Su txapak eta
txotxa Udalak jarriko ditu.

Ondoren **BAZKALOSTE GIROTUA**
parte-hartzaileek gidatuta.
Taldeek aukera izango dute euren
mozorroa erakusteko eta sariak
izango dira.

19:30etan **DJ REIMY** kalean zehar.

23:00etan **GANIBET** taldearen kontzertua

00:00etatik 03:30era **MUGI PANDEROA** taldearekin dantzaldia



Urriak 5 igandea

12:00etatik 14:00etara ANIZTASUN FESTA plazan, Etxekonekok Elkartek antolatuta. Herrian ditugun kultura ezberdinetako kideek eskainitako dantza, kanta eta janari dastaketa.

Eguerdian MAIALEN LUJANBIO eta UNAI ITURRIAGA bertsolariak ibiliko dira herrian zehar.

13:00etatik 14:00etara Gazte eta helduen **SEGA-PIKATZE TXAPELKETA** Almitza Segak elkartek antolatuta.

17:30ean DANTZA EMANALDIA plazan, Iztueta Dantza taldearen eskutik.

Ondoren HERRI KIROL SAIOA plazan, Almitza Segak elkartek antolatuta.



17:00etan **PILOTA ESKOLAKO TXAPELKETAREN FINALAK** Toki Alai pilotalekuan, benjamin, alebin eta infantil mailan. Eguraldi txarra balego Restin izango dira partidak.

Xirika Kultur Elkarteak antolatuta:

19:00etan **ELKARRETARATZEA** Euskal Preso eta Iheslari Politikoen eta Palestinaren alde.

19:30ean **PATATA TORTILA LEHIAKETA**ren hasiera.

21:00etan **TORTILEN AURKEZPENA** eta **AFARIAREN HASIERA**

Afalondoren **BINGOA**

23:30ean **ANDONI OLLOKIEGI**rekin kantaldia

XIRIKA ELKARTEAK Xirikako kamixetakin ateratzeko deia egiten du.



Urriak **11** larunbata

KUADRILLA EGUNA

11:00-13:30 eta 16:30-19:30 PUZGARRIAK haur eta gaztetxoentzat Restin.

13:00etan KUADRILEN IRTEERA plazatik **JUN DA JO TXARANGAREKIN** herriko kaleetan zehar. **ARGAZKI GUNEA** plazan eta bazkalondoren zoketa.

14:30ean KUADRILLEN EGUNEKO BAZKARIA plazan. Txartelak herriko tabernetan daude salgai urriaren 8ra arte.

18:00etan KUADRILEN ARTEKO JOKOAK eta jarraian **KALEJIRA** herrian zehar **JUN DA JO txarangak** giroturik.

23:00etatik aurrera AKERBELTZ taldearen emanaldia.

Ondoren OIHANA BEGANA DJ-aren saioa.



ZALDIBIKO FESTAK 2025

EDALONTZIEI BIZITZA, ZUREA DA HITZA!



EZ DITZAGUN LURRERA BOTA!

ESKURATU EDALONTZIA 0,50€

**EDALONTZiarekin jarraitu parrandan
eta edalontzi garbiengatik trukatu**

**AMAIERAN ETXERA ERAMAN EDO BARRAN UTZI
EDALONTZIAK BIZITZA LUZEA IZAN DEZAN**

ESKERRIK ASKO!

* MURRIZTU * BERRERABILI * BIRZIKLATU *



FESTETAN, ERASOEN AURREAN ZER?

1

NOIZ?

ERASOAK DIRA.....

- Iraintzea, umilatzea, kritikatzeta, mehatxatzea,...
- Golpatzea.
- Jarraitzea.
- Deserosotasuna edo beldurra sortzen duen edozein jokabide!
- Baimenik gabe ukitzea edo igurztea.
- Ziztatzea, edozein instrumenturekin.
- Exhibizionismoa.
- Nahiaren aurka hurbiltzea.
- Mendekotasun kimikoa eragitea edo eragiten saiatzea.
- Sexua izateko norbait presionatzea.
- Bortxatzea.
- Adostu gabeko harremana eraso da!



ZALDIBIAKO
UDALA

2 NORA JO?

- Indarkeria matxistarik gabeko informazio gunea:
urriak 11, 20:00-02:00 plazan.
- Herriko arreta morea 24h:
606 465 981
- Emakumeen indarkeriaren biktimentzako arreta
zerbitzua 24h (Emakunde):
900 840 111
- Larrialdi deiak: 112

3 BABESA ESKAINI.

- **"Nola zaude?" "Zertan lagun zaitzaket?"**
- Gune seguru batera bideratu:
argiztatua, eseri daitekeena,
behar duen denboran egon
daitekeena.
- Ez utzi bakarrik, saiatu bere konfiantzazko norbait aurkitzen/kontaktatzen,
bestela, gelditu berarekin.

4 ENTZUN.

- Errespetatu bere denbora:
"Lasai egon, nahi baduzu hemen egongo naiz zurekin."
- **Ez hartu erabakirik bere baimenik gabe.**
- Zer egin nahi duen galdetu.
- **Ez baloratu, ez epaitu, ez jarri zalantzan bere hitza, ez estutu erabakiak hartzeko.**
- Laguntza eskatu behar bada.



2024ko jaiak argazkitan

Argazkiak:
zaldibia.org
Goierriko Hitza



2024ko jaiak argazkitan



2024ko jaiak argazkitan





2024ko jaiak argazkitan



2024ko jaia argazkitan



2024ko jaiak argazkitan





2024ko jaiak argazkitan







☎ 943 20 20 20

✉ info@ekotrade.eus

📍 Inaxio Berasarte Bidea, 20115 Astigarraga,
Gipuzkoa

📍 Elbarrena 7, 20247 Zaldibia. Gipuzkoa

ne**ki**ne pale**te**n logistika

Agroaldea Olaeta 6, Zaldibia



♣ MERTZERIA ♣



**EMAKUMEZKO
GIZONEZKO
ETA HAUR
JANTZIAK**

☎ 611 172 779

Santa Fe Kalea Txindoki, 23
20247 ZALDIBIA



Tel.: 609 197 063
goiuri@telefonica.net

LEUNDA
GARRAIORAK - TRANSPORTES

www.transportesleunda.com



☎ 943 88 17 82 / 608 77 06 12

jm@transportesleunda.com
Pol. Elbarrena Pab. 7 · 20247 ZALDIBIA



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - FONTANERIA
BEROGINTZA - CALEFACCION

☎ 609 614 552

Grupo Txindoki, 23 - 4º izda. - ZALDIBIA



Aluminox

Precisión mecanosoldada en
aluminio e inoxidable



Elbarrena Auzoa · Edificio, 72 · Nº 8

Tel.: 943 88 76 08 · Fax: 943 88 56 62

20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa)

admin@aluminox.es · www.aluminox.es

Gaztelu

Iturgintza - Fontanería
Berogailu - Calefacción

Erakusketa / Exposición

Esteban Lasa 7 - Beasain

☎ 943 88 80 29 · faxa: 943 161 464

gaztelu.koop@gmail.com
www.gazteluiturgintza.eus



ARRESE

**Jatetxea
Baskari eta Afariak**

**Santa Fe Jai
zoriontsuak**

☎ 943 45 95 36

ZALDIBIA

ILEAPAINDEGIA



943 88 57 49 • ZALDIBI

ILLATI TABERNA



☎ 675 16 52 17
943 16 16 77
ZALDIBIA



Txindoki

Txindoki Sukaldeak

☎ 943880398

✉ info@txindoki.com

📍 Jose Migel Iturriotz • Beasain

www.txindoki.com



**Joxepane
Herri Ostatur**

Zaldibia - 943 88 91 28

MTZ MUGERTZA



info@mugertza.com

www.mugertza.com



GOENAGA S.A.

ALTZAIRU HERDOILGAITZ SALEROSKETA

☎ 943 880 663

ELBARREN AUZOA Z/G

20247 ZALDIBIA



Muñagorri Enea
20115 **ASTIGARRAGA** (Gipuzkoa)
☎ 943 555 647 · Mugikorra: 679 123 892



Santa Fe, 25 behea

☎ 943 88 00 46

ZALDIBIA (GIPUZKOA)



Santa Fe 27

☎ 943 88 28 68



☎ **670 240 745**



Ogia & Kafea FELI

Santa Fe kalea, 27

☎ 662 067 690



OGIA · LOTERIAK
GARBIGAIDENDA
OPARIAK · ELIKAGAIK
ESKOLAKO MATERIALA

☎ 943 16 08 76

AZTIA-BERRI, 1 · 20247 ZALDIBIA



MOZORRO DENDA · DISFRACES

Elbarrena industrialdea, 72-1
20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa)

☎ 943 88 82 32

www.jaiakdenda.com



Nekazal Turismoa
Jatetxea

LAKAO
ETXE



☎ 943 88 00 44 / 615 74 59 24
ZALDIBIA



Hotel Zela

Pol. Elbarrena 32
20247 Zaldibia

Tel.: 943 16 16 66

Fax: 943 88 45 27

info@hotelzela.com



EGUZKI ENERGIA PLAKAK

Diseinatu
Instalatu
Mantendu

tapiaenergia.com



iurrelan

Pol. Elbarrena, 25
20247 Zaldibia (Gipuzkoa)
España

Tef: 0034 943 161 596

Aurrekontua 2025

PLAZAKO MUSIKA 22.240,00 €

- Urriak 2: 2.904,00€
- Urriak 3: 2.994,50€
- Urriak 4: 8.094,50€
- Urriak 11: 8.247,00€

KIROLAK 3.000,00 €

- Pilota partidak
- Herri kirolak

HAURRENTZAT 3.890,00 €

- Txorotxaranga
- Play Backa
- Puzgarriak

BESTELAKOAK 3.300,00 €

- Txupinazo Festa
- Bertsolariak
- Herriko Musikariak

OTORDUAK 4.850,00 €

- Mondeju banaketa
- Jubilatuen hamaiketako
- Kuadrilla Eguna
- Arroz Jana

PROGRAMA ETA PUBLIZITATEA 4.025,00 €

- Liburuxkaren maketazioa eta inprenta
- Publizitatea
- SGAE

AZPIEGITURAK ETA BESTELAKOAK 16.201,10 €

- Oholtza eta karpa
- Garbitasuna
- Komunen alokairua
- Argi-indarra eta elektrizista lanak
- Edalontziak
- Hesien alokairua
- Suak, bonbonak...

DIRU SARRERAK 1.500,00€

- Programako iragarkiak

GUZTIRA AURREKONTUA **56.006,10 €**

